

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Otsailak 14, 138. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




ANDRES GABILONDO
Bertsolariek
omenduko duten
bertsozalea



A. Balanzategi

Bizitza itsu batek ikusita



ARRASATE
KIROLAK

**Astore, Nike, Reebok, Auia,
Adidas, Converse, Mito, Ellesse,
Boreal, Libero, Quicksilver, Le
coq sportif, Millet, Saucony,
L. A. Gear, etab.**

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30

B


ernardo Atxagaren Bi Anai liburuak dakarkit burura erretratu honek, izan ere ama berekoak dira eta. Bainan oraindik literaturak, ez hemengoak ez hangoak, ez du titulorik sortu bi "Virtuoso" hauek euron alambre hotsari ezker sortzen duten giroa isladatzeko. Kontuak kontu, *EH Sukarrak* ez zuen arazorik



Jabier

izan larunbatean bere ohizkoa ez den gitarrajole bat onartu eta bere musika onená garatzeko. Txirrita-

peko lokalean, *salon konzert* hartan, frogatua gelditu zen euskal musika familia handi bat dela.



Patterncam

**EREDUAK,
MAKETAK ETA
KONTROL-TRESNERIA
CAD-CAM
BIDEZ**

Musakola auzoa, 26
Kataide Industrialdea. 15. pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxe: 77 06 06
ARRASATE

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa M. Mondragon.

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Hizkera antzerakoaren bila

Lerro hauen idazten ipini naizenean, ETAk Madrilen egindako azken sarraskiaren oihartzuna ez da oraindik amatatu. Gaur arratsaldean, berriz, HBk manifestazio batetarako deia egin du, **bakea lor daiteke** izenburupean. Bien bitartean, hamaikaa istilu berri gerta daitezke gure herria, dagoeneko agortzear dugun harridurarako ahalmena are murriztagoa bihurtuz.

Bortizkeriak oinaze eta kalte handia sortarazi dio gure herriari. Euskaldunok izurrte luze bat pairatzen ari gara, historiak ongi adierazten duen bezala. Erasotuak izan gara, gupidagabeki, gure eskubideetan zapalduta. Baina geure buruari ere sekulako mina eragiten ari gatzazkio, euskaldunon gainera egundoko madarikazioa erori izan balitz bezala. Eta guzti hori horrela delarik, batzuek eta besteek darabilgun hizkerek bide kontrajarria jarraitzen dute, inoiz elkartuko ote diren esperantza ahituz.

Nik ez dut uste gure herria —etika baloreei dagokienez, noski, gainerakoengandik berezia denik. Beste gauza bat da estiloa edota kultur edukina. Logika hutsaren izenean, ezinbesteko esfortzua egin beharko genuke denok **moralaren ekologia**-ri dagokion arloan, gutxieneko oinarria ipintzeko, guk —lehendabiziko interesatuok— bakearen bila irten gaitezten.

Etika —osasanaren mesedetan, pilaturik ditugun huts eta ezintasunak errebisatu beharko genituzte, **behin eta berriz**, edozer ideologia gizazalek eskatzen duen lez. Urruti gaude oraindik euskal elkarkidetzatik eta, beldur naiz, aukeratu dugun sistemak ez ote gaituen gero eta urrutirago eramaten. Aldiberean, politiko-moralak gure aurka ez ote duen jotzen ere aztertu beharko litzatekeela iruditzen zait. Ez naiz ameskerietan ari. Elkarrizketaren kulturari buruz ari naiz, soilik.

Oreka zentzudunaren ezarpenak etorkizuneko ildoak aurkitzen lagunduko liguke. Zeren gizabanakoa eta bere inguruaren zirkunstantziak kontutan izanik, justiziari aurrerapausu galanta aurrezten ari bait zaio. Eta, duda izpirik gabe, justiziarik gabe ezin daiteke bakez mintza. Bakea giza-baloreetako erpina dugularik, idealak beharrezkoak dira, gizakia bera hazteko, errealitateaz jabetzeko eta nor beraren hutsuneak ez ahazteko. Horregatik eutsi behar diegu geurei. Eta bakea ideal errealista da, zenbaitek alderantziz pentsa dezaketenean.

Egitasmo utopikoak ahaztu gabe, elkarren arteko solasaldiaren izpiritua errebindikatu beharra dago. Iritzi desberdinetako kultura eta gorrotorik gabeko eztabaida. Hizkera antzerkoaren bila abiatuz, etorkizun hurbilean bakearen fruituak uzta ahal izan genituzke.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22


Pando

PINTURAK eta
PAPEREZTAPENAK
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

Erdiko kale. 79 19 37

ILEA

Ferrerias. 79 87 62



Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ZANGITU C. B.

PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Bakea gaztea da

Larunbatean, Donostian, Gipuzkoako elizbarrutiko gazteen topaketa izan zen. Aurten "bakea gaztea da" lemapean. Hantxe izan ginen arrasatear gazte talde bat hain zuzen, bakearen aldeko ekitaldietan parte hartzen. Baina Donostian izan zirenak ezezik, Bilbon "Gesto por la paz"ek antolatutako manifestapenean izan ziren arrasatear asko ere, ezagutzen ditugu.

Bai; ordua zen!! Hasi gara arrasatear gazteok, gure beldur eta alferkeriak alde batetara utzita, benetan pentsatzen duguna adierazten. Baina etxetik urrun bakearen alde hots egitea erraza da. Orain, herrian bertan egin behar dugu lan, bakearen alde.

ARRASATEKO KRISTAU GAZTE TALDEA

Manipulaketa

Eskutitz honen bitartez, otsailaren 7an Arrasateko Institutuan gertaturiko

ekintzak salatu nahi ditugu. Argitu beharrezkoa da Diario Vascok informazioarekin egindako aldrebeskeria.

Egunkari horrek zera eman zuen jakitera: Arrasateko Institutoan egindako geldialdia Madrilen gertaturiko atentatua gaitzetzeko izan zela. Hau gezurtatu nahi dugu, zeren eta geldialdi hau egiteko beste arrazoi batzuk zeuden. Ideia, mota guztietako indarkeria gaitzetzeko zen (Bai ETaren indarkeria, atentatuen bidez, eta baita Espainiarrarena bortizkeria errepresio eta torturaren bidez), bien arteko *negotziaketa* bat eskatuz, baina beti Euskal Herriak *autodeterminaziorako* duen eskubidea errespetatuz. Inoiz ez zen Madrilera atentatua gaitzetsi baizik eta egunero handiagoa den arazo bati konponbidea eskatzen zitzaion. Horregatik *manipulaketa* hau publikoki salatu nahi dugu, berriro ere gertatu ez dadin eskatuz, zeren eta ekintza hau errespetu falta handi bat izan da. Mesedez objetiboak izan.

ARRASATEKO NESKA MUTILEN BATXILERGO
INSTITUTOA



Agurtzane Loidi




Rosa Mari Mondragon

Hilebete batzuk gure artean egin ondoren, beste zeregin batzutura aldegin du **Agurtzane Loidi** bergararrak. Bere ordeztu **Rosa Mari Mondragon** aramaioarra izango da ARRASATE PRESSen kazetari. Eskerrikasko eta zorte on, Agurtzane! Ongi etorri Rosa!

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

Maiteminduta zaude?




**Garbiñe Heriz
(Langilea)**

Bai enamoratuta nago eta normalean San Balentin eguna ospatzen dut, elkarri erre-galotxo bana eginaz.




**Jesus Del Val
(Ikaslea)**

Bai, enamoratuta nago eta San Balentin eguna ospatzen dut, afari eta erre-galu bat egi-naz.



**Jose Mari Jauregi
(Jubilatua)**

Bai maiteminduta nago baina ez dut uste inoiz San Balentin eguna ospatu dudarik.



**Josune Viteri
(Langabetua)**

Ez nago maiteminduta, noizbait egon izan naiz baina sekula ez dut San Balentin eguna ospatu.



**Karmen Garai
(Etxekoandrea)**

Total enamoratuta nago, eta gehienetan San Balentin eguna afari batekin ospatzen dugu.



**Jorge Juan
(Langilea)**

Ez, ezkondu nago. Enamoratuta nagoela esaten dute. San Balentin eguna noiz behinka ospatu izan dut, baina oso gutxitan.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdñak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak**

**PUB
HAIZEA**



ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza-terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe-bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatoria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larnialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramiao	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAIN'TZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAI LEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



14

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El rey pasmado" (5-7.30-10).
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gaez: Mozos, Bergara.

15

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El robo de la joya" (5-7.30) "El rey pasmado" (10).
- Zuhaitz eguna, goizean landaketa Garagartzako mintegian.
- Umeentzako bideo-emanaldia, arratsaldeko 4.30etan Monterronen.
- Kontzertua: Arrasate Musika-lekin, Parrokian arratsaldeko 8.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gaez: Camacho, Bergara.

Kirol Agenda

16

IGANDEA

- Zinea: Alai: "El robo de la joya" (5-7-9.30)
- Mendi-irteera: Agoitz - Zarieta - Arangozki.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

17

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "El robo de la joya" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

18

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "El robo de la joya" (7-9.30)
- Drogomenpeketasunei buruzko sensibilizazio astearen lehen eguna: "Dosis de pasividad" antzerkia Tuantantes del Norterekin, eguerdiko 12etan Institutoan

- eta muralak arratsaldean.
- Sukaldaritza ikastaroa Torrepe Elkarteak, arratsaldeko 3etan.
- Gantxilo ikastaroa AEDn, arratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

19

ASTEAZKENA

- "Dosis de pasividad" antzerkia, eguerdiko 12etan EPPan.
- Hitzaldia: "Publizitatea eta motibazioa", AEDn arratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

20

OSTEGUNA

- "Dosis de pasividad" antzerki, San Viatorren eguerdiko 12etan eta mahaingurua: "Drogomenpeketasuna eta bizi moduak", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

Futbola

- Mondra - Getxo, igandean arratsaldeko 4etan Atxabalpen.
- Mondra - Alde Zaharra, igandean eguerdiko 12.30etan Atxabalpen.

Rugbya

- Mondra - Mungia, igandean eguerdiko 12etan Garagartzan.

Futbitoa

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne, lehen faseko azken partidua larunbata eta igandean.

Pilota

- Euskal Ligaren barruan, igandean eguerdiko 12etatik aurrera Arrasate - Atxurbide, Iturripen.

Liburuak

• Monterroneko liburu berriak

Literatura:

- Zamiatin, Yevgueni: "Nosotros".
- Tan, Amy: "La esposa del dios del fuego".
- Pietsuj, Viacheslav: "La nueva filosofía moscovita".
- Narayan, R. K.: "El pintor de letreros".
- Belli, Gioconda: "Sofía de los presagios".
- Yerofeiev, Viktor: "La bella de Moscú".
- Atxaga, Bernardo: "Behi euskaldun baten memoriak".
- Lertxundi, Anjel: "Kapitan frakasa".
- Genet, Jean: "Zaindari zorrotza & Lau orduz Xatilan".
- Buzatti, Dino: "El desierto de los tártaros".
- Traven, B.: "El puente de la selva".
- Maalouf, Amin: "Los jardines de luz".
- Dexter, Pete: "Paris Trout".
- Beste batzuk:
 - Hammacher, A. M.: "Magritte".
 - Marker, Sherry: "Edward Hopper".
 - Constantino, Maria: "Klimt".
 - Goikoetxea, Imanol: "Gipuzkoa en bicicleta de montaña".
 - Veron, Georges: "100 cumbres de los Pirineos".
 - Andrés-Gallego, José: "Historia general de la gente poco importante".
 - Santiuste Bermejo, Victor: "Hijos con problemas de lenguaje".
 - Historia de las mujeres 1: "La antigüedad".

Ikastaroa

- Igeriketa iksataroa
- Aretxabaletako Udal Kulturara Batzordeak igeriketa ikastaroa



Apotzagako bertso-jaiak

Aurten Andres Gabilondo omenduko da

Aspaldiko ohiturari jarraipena emanez, bihar iluntzean Apotzagako Auzo-Etxe elkarteak bailarako bertsolari gehienak bilduko dira. Garai batean txapelketa bezala planteatzen zen Apotzagako bertsolarien bilkura, baina azken urteetan, txapelketa alde batera utzita, lagun arteko giroa indartu nahi izan da.

Urteroko legez, bertsoan hasi aurretik, elkarrekin afalduko dute Apotzagan biltzen direnek, gaueko bederatzietatik aurrera. Afalostean bertso ugari entzuteko aukera izango da, denez, egiteko asmoa bait dago: gaia jarrita, puntuak, gai librean, binaka, hirunaka.... Letona, San Miguel anaiak, Txarrugalde, Plazaola, Urain, Sarasua anaiak, Goikolea, Izarzelaiak, Loidi, Ainhoa, Saioa, Maider, Agurtzane, Leire, Amaia eta Arantzazu, bertan izango dira Andres Gabilondo urte askotan bertsolariaren alde lan egin duena omentzeko.

bat antolatu du. Martxoaren 2an hasiko den ikastaro honetan plaza mugatuak izango dira eta ume zein helduentzat talde bereiztuak egingo dira.

Prezioa 4 000 pezetakoa izango da bazkideentzat eta 5 900 pezetakoa ez direnentzat.

Musika

• Aretxabaletan rock kontzertua

Nikaraguan eraiki nahi den gaztetxea dela eta, Aretxabaletakoak kontzertu bat antolatu du larunbat honetarako. Bertako kiroldegian eta gaueko hama-

retan hasita, kontzertu bat eskeinitzeko dute E.H. Sukarrak, Pichones eta Malaña taldeek. Sarrera 500 pezeta.

Omenaldia

• Torturaren eguna

Larunbatean, Torturaren eguna gogoratzeko, orain hamaika urte hil zen Joseba Arregiren omenezko ekitaldi bat antolatu da Aretxabaletan. Kepa Urraren atxiloteta ere gogora ekarri nahi dute. Arratsaldeko 7.30etan ekitaldiak hasteko, eskualdeko manifestaldia egingo da.

Ikastaroa

• Taila ikastaroa

Arrasateko Uriburu kaleko tailerrean taila ikastaro bat emango da. Hilaren 17an hasi eta asteen 3 egunez, 2 orduko klaseak izango dira. Plaza mugatuak direnez, azkar ibili izena emateko. Hona hemen telefonoak: 79 40 79 edo 79 21 05.

• Saloiko dantzak

Eskoriatzako Kultur Etxeak antolatuta Saloiko dantzen ikastaroa izango da otsailaren 19ko apirilaren 15era bitartean, asteazkenean. Fox-trot, balls, tango, txatxatxa eta antzekoak irakatsiko dira Irakasle Eskolan. Ahal dela binaka egin behar da izenematea.

Drogen aurka

• Drogomenpekotasunaren aurkako astea

Otsailaren 18an hasi eta 23a arte, drogomenpekotasunaren aurkako sentikortasun astea izango da Arrasaten. Lehenengo bost egunetan, Tunantes del Norte antzerki taldekoek «Dosis de Pasividad» obra aurkeztuko dute. Tokia institutua izango da eta ordua eguerdiko hamabiak. Gainera beste hainbat ekitaldi ere izango dira, muralak pintatzea, 20an mahai inguru bat Monterronean, 22 larunbatean, tailerrak udaletxeko enparantzan, eta azken egunerako ere mendi irteera bat prestatu dute.



“ “ Aurten betetzen omen dira 25 urte hango ikastola sortu zela eta joan den astean afari batera deituak izan ginen lehen hiru promoziotako irakasle eta ikasleak. Bildu ginen sail ederra! Denen izenak emateko lekurik ez (memoria bai, baina!) eta “piper” egindako batzuk aipa nahi nituzke lotsa gorritu daitezen behin sikira. Non arraio zineten Joxemartin Aieteko, Josu Zabala Hertzainakeko, Xabier Aldalur, Andoaingo “mia” eta Baltzategiko Edurne? (...)

Elurrak eta lainoak luzaro eduki naute Arrasatetik aparte. Sekula santan, ordea, ez dut ahandzi, eta ez ahandziko ere!, hango jendeen beroa eta adeitasuna. Noan aldiro jatorresten diot herri bazterreko horri. Ederrean ez dakit, baina jatorrean ez dago Arrasateri eramango dionik. Utzi beharra dago. Beste bat da hura, beste bat den, bai...!”

(Bizargorrik Diario Vasco egunkarian. 1992-2-5)

“ “ Nekazaritza ekologikoa aurrera eramatea da Biolurren helburua eta hortarako produkzioa beharrezkoa da. Eta produkzioa egiteko nekazaria behar da, eta baita tekniko eta saltzaileak ere. Nekazariak dira Elkarre honetan inportanteenak eta beraiek zuzentzen dute Elkarrea. (...) Argi dago Euskal nekazariak kalitatezko nekazaritza batetara jo behar duela eta hori gisa honetako nekazaritzarekin atera daiteke. Gainera, produktu hauen oferta demanda baino tikiagoa da. Errentabilitatea lortzeko zein produktu behar den ikusi behar da. Momentuz, barazkiak, fruituak, arraultzeak, oilaskoak dira demanda haundienekoak. Barazkiak eginez familia batek bizia irabazteko 8.000 m airean edo 2.000 m plastikopean nahikoa liratekeela uste dut eta frutekin 1.5 Ha.

(Joxe Urangak Ttipi Ttapa aldizkarian)

Zer asmorekin antolatu da “Gazteria eta Drogomenpekotasuna” astea?



“Gazteria eta Drogomenpekotasuna” astea Arrasateko zortzi gazte elkarte edo talderen elkarlanaren ondorioz sortu da, Udaletxearen laguntzaz sortu ere.

Droga ez da kanpotik datorkigun gauza bat, gure bizimodurik eta gure aukerekin lotuta dagoen arazo bat baizik, eta gazte guztiok jasaten dugun erazo bat.

Gazteak askotan jarrera nahiko kontsumista eta indibidualista izaten dute, baina gazteriaren arazoei aurre egiteko gazteen partehartze eta konpromezua ebehar beharrezkoa da.

Egia da askotan gazteoi ez zaigula onartzen gute autonomia, eta baztertuak sentitzen garela, baina honen aurrean ez dut uste pasibitatea denik bidea. Azken finean, erreflexio bat bultzatu nahi dugu; Arrasateko gazteen artean, beraien kritiko izateko ahalmena erabil dezaten, gustatzen ez zaizkien gauzak aldatzeko, eta beste aukera batzuk bilatu ditzaten eguneroko monotoniatik ateratzeko.

Hau da bi lemarekin azaldu nahi duguna, “Contra el aburrimento, acción!” eta “Parte har dezakezu”.

MIKEL ZUBILLAGA
ORKATZ SKAUT TALDEKO PARTAIDEA

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07



IKUSENTZUTE BIDEZKO MEKANOGRAFIA

- 28 ordutan, egunean klase bat, 200 pultsazio minutuko
- Hatzamar guztiekin idaztea
- Tekletara begiratu gabe
- Baita abiadura ikastaroak ere, minutuko 350 pultsazio arte.

BAITA MEKANOGRAFIA
ORDENADORE BIDEZ ERE

TAKIGRAFIA

meca-rapid

Otalora, 3-1. C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53



17168

HISPANICArekin hilebeteko oparirik onena: 18 martxatako mountain bike bizikleta.

GALDETZEKO

- 2 liburuki
- 896 orrialde
- 30.000 hitz
- 1.300.000 hitz baino gehiago
- Sakontzeko 150.000 bidalketa baino gehiago

SAKONTZEKO

- 14 liburuki
- 5.824 orrialde
- 6.000 artikulua
- 4.000.000 hitz inguru
- 7.500 ilustrazio baino gehiago, gehienak koloretan

HISPANICA
jakintzaren mundua zure eskura

DATUAK JAKITEKO

- Liburuki 1
- 494 orrialde guztira
- 176 orr. munkuko nazioei buruzko datu zehatzekin
- 96 orr. nazioarteko datu konparatiboekin
- 64 taulak munduaren historia laburtzen dute
- 71 mapa koloretan orr. osoan
- 76 orr. toponimoen indezearekin

ZEURE BURUA HEZITZEKO

- Liburuki 1
- 448 orrialde
- 39 entseiu tematiko
- 330.000 orr. inguru
- 500 taula baino gehiago sakontzeko bidalketekin

THE ENCYCLOPAEDIA BRITANNICA



eta urtero 3 liburu

ANGLOTUTOR

Ingelesaren irakaskuntza programatua.

“Irakaskuntza programatua azken 200 urtetako aurrerapauso handiena da pedagogian”.
 (“Pozzard txostena”. UNESCO).



INFORMAZIOA NAHI DUT

Izen-deiturak:
 Helbidea:
 Herria:
 Etxeko tfnoa:
 Laneko tfnoa:

Honako informazioa jaso nahi dut:

- Enciclopedia Hispánica
- Enciclopedia Británica
- Anglotutor

□ Matrikulaldia Ahizke-n

Ahizke-Cim hizkuntz eskolan laster zabalduko dute Cambridge-ko asterketarako matrikula epea. Horren berri, komunikabideetan eta akademian bertan izango da, baina adi egoni beharra dago, izena emateko epea ez bait da luzea izango, aste bat edo bi gehienez.

□ Yoga ikastaro berriak

Arrasate Yoga Elkarteak hainbat ikastaro desberdina antolatu du hilabete honen barne. Asteazken zehar, egunegun, talde konkretu bakoitzari dedikatuko die ihardunaldi bakoitza, hala nola, bazkideentzat, pertsona nagusientzat eta umeentzat. Informazio gehiagotarako hona hemen telefonoa : 79 35 76.

□ Soldaten igoera udaletxean

Gobernuko azken komisioan, udaletxeko langileen soldaten igoera aurreikusitako zen, eta ehuneko bostean igoetzea erabaki zen.

□ Larrea etxebizitzak

Larrean egin behar dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren proiektua bukatu dute dagoeneko. Datorren hilean, martxoan, Larreako Etxebizitzetako bazkide guztiei batzar batetarako deialdia egingo zaie. Batzarrean, proiektuaren berri emango zaie. Eraikitze lanak, apirilean hasiko dira seguru.

□ Kontzertu berriak, ziklo berria

Arrasate Musikalek ziklo berri bat planifikatu du. Ziklo honen bidez, aurreko ekitaldietatik desberdintzea nahi du. Berripen handiena bertako edo hurbileko musikari eta konpositore berriekin etorriko da.

ONGI ETORRIA JAI OBERRIARI

Andrea Paredes Garai, otsailaren 6an.

Txandaka

ZER DA EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBORAKO PLANA

Emakundek bere lana burutzen hasiteko marko bat osatu du lehenik eta behin, dena filosofia baten barruan egin dadin, eta horixe da plana. Oso argi dago helburua, zer egin nahi dugun eta zer gizarte mota propiziatu nahi dugun: arlo publiko zein pribatuan gizezko eta emakumeen arteko aukera berdintasuna. Baina horrekin denok ados egon arren, baldintza objektiboek ez dute uzten. Ohiturak, hezkuntza eta tarteko, gizarte androzentriko bategan bizi gara eta zaila da gure jokamoldea aldatzea.



Txaro Arteaga (*)

Gauzak goitik behera aldatzea denon helburua izan arren, oso zaila da egiturak aldatzea. Guk orain XIX. mendeko egiturekin funtzionatzen dugu eta XXI. mendean dugu hanka bat dagoeneko. Barita majikorik ez dugunez, estrategia bat montatu beharra dago oztopoak kentzen joateko eta horrek arlo bakoitzean neurriak hartzea eskatzen du: ordenamendu juridikoan, kulturaren, hezkuntzan, enplegu, prestakuntza, lan harreman eta gi-

zarte-segurantzian, osasunean, zerbitzu soziokomunitarioetan eta kooperazioan.

Hasera-haserako lana diagnostikoa egitea izan da: emakumeok arlo guztietan non eta nola gauden zifretan jakiteko. Zailena gizartean kontzientzia eta mentalitatea al-

datzea da eta gure ekintzak horretara zuzendu beharra dago. Diagnostiko hori oinarritzeko, erreferentzia da eta horretan beste talde asko ari da oinarritzen. Orain arte egin duguna ikusten ez den lana da, emaitzak ez daude agerian, gu gainera erakunde bultzatzailea gara, ez zerbitzuak jartzen dituen.

Bukatzeke, gai honetan ere oso erraza da demagogia egitea eta serioitasunez lan egitea oso zaila. Emakumeen arteko solidaritatea behar da, besteen lana errekonozitzeko adinako zabalak izatea. Gu irekita gaude edozein proposamen jasetzeko, plan hau ere ekarpen askorekin egin dugula horren lekuko.

(*) EMAKUNDEKO ZUZENDARIA

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK


Ferrerias, 28-B ARRASATE Tfnoa: 79 08 70

ENARA

OSAGIRRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate





Gelma enpresa etorkizun berriaren aurrean dago.

Atusa enpresak Gelma eros dezake

Jaurlaritzak laguntzen bada eta langileak ados baleude

Azken aldean Gelmaren egoerak okerrera egin eta gero, Aguraingo Atusa enpresa Gelma erosteko prest azaldu da. Gelmako langileek, erosketa aurreakordioa onartu zuten asanbladan eta orain, Jaurlaritzak eman dezaken laguntza ekonomikoaren zain daude, behin betirako erosketa akordioa sinatzeko. Badirudi Jaurlaritza eta langile-batzordearen arteko negoziazioak bide onetik doazela; beraz, normalena Gelma saltzea izango litzateke.

Prentsan orain denbora gutxi agertzen ziren berriak besterik pentsa arazten bazuten ere, Gelmaren egoera ekonomikoa oso larria zen, langileak hila-bete t' erdi zeramaten kobratu barik eta. Hala ere, ez zitzairen lanik falta, lau eta bost errelebotara bait zebiltzan lanean. Gauzak horrela, langileek kendu egin zuten zuzendaritza eta enpresari irtenbideren bat emateko lanetan hasi; Gelma Sozietate Anonimo Laborala

denez, hau da, jabegoaren %51a langileen esku dagoenez, ez zuten oztoporik izan zuzendaritza alde batera uzteko. Erosketa aurreakordioa erosketa akordio bihurtzen bada, lantegia Sozietate Anonimo Laborala izatetik Sozietate Anonimoa izatera pasatuko da. Ondorioz, langileek ez dute inolako jabegorik izango.

Langileek asanbladan onartu zuten aurreakordioaren arabera, Gelman dauden lanpostu finko guztiei eutsiko zaie. Horretaz gain, langileren batek bere borondatez lantegia utzi nahi izango balu, 3.000.000 PTA jasoko lituzke; diru-kopuru bera jasoko lukete 58 urte baino gehiago izan eta jubilatuta nahi luketeenak ere.

Aurreakordioa onartzerakoan langileek erakutsi duten adostasuna ikusita eta Jaurlaritzaren laguntza lortzeko bidea zabalik dagoela ikusita, Atusak laiter Gelma erosiko duela esan daiteke.

Usteak uste

Ostirala gaua. Afaria. San Frantzisko Xabier Ikastolako ikasle eta irakasle ohiak. Baita bertan diren aspaldiko maisu-andereñoak ere, 25. urteurrena ospatzen da aurten.

Mugimendu herrikoia ikastolena. Herritarren lanari esker sortua. Euskal kultura eta euskara berreskura eta zabaltzeko mugimendua.


Integrazioa izan da gure Ikastolaren helburu nagusitariko bat. Helburu zaila baina ez ezinezkoa. Lehen urte haietan, eta helburu hori zela eta, auzo guzietara heldu behar izan zuen Ikastolak. Hainbat kanpaina egin ziren, dirua eskatu han eta hemen, jende askorekin hitzegin, konbenzitu, eta inplikatu behar. Eta kuotak, ahalik eta txikiak aipaturiko helburua lortu ahal izateko.

Herriko beste ikastetxeekin harremanetan jarri, eskola denak euskalduntzea bait zen Ikastolaren beste helburu ardurua. Inoren gainerik jarri gabe, ideia haiek hedatu. Animo eta espiritu haiekin, edozer gauza egiteko prest: norberaren umea Ikastolatik atera eta beste ikastetxe baten sartu.

Eskola euskalduna nahi genuen. Publikoa, herrikoia, bere gestioan guraso, irakasle eta bazkide denak partaide zirelarik.

Horrela darrai gure Ikastolak. Ez ditzagun arrasatear guztiok ahaztu mugimendu honen ideia eta filosofia. Saia gaitezen beraien alde.

JOSE RAMON ELORTZA



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABAETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburusak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

❑ **Aenor Garantia**

Arrasateko zazpi enpresek jaso dute «Aenor» garantia agiria. Agiri honen bidez enpresako proiektu berri eta lehengo fabrikazio osoari errekonozimendu agiria ematen zaio.

❑ **Hobekuntzak Ospitalean**

Deba Garaiko Mankomunitateak hainbat gestio egin eta gero, oinarritzko zerbitzu sanitarioen hobekuntza egitea lortu du. Nahiz eta atzerapenarekin izan, espero da datorren hilabeterako obra hauek bukatuta izatea. Osakidetza diru falta nabaria adierazten duen bitartean, oraindik hutsune asko ikus daitezke eguneroko zerbitzutan.

❑ **CADEM programa**

Joan den astelehenean hasi eta apirilaren 3a arte, ibilgailuen errebisioak egingo dira Udal Biltegian. Goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko 6.30ak arte, auto ugari pasatzen dira Aldaiko Udal Biltegitik. Ibilgailuaren errebisioa egin nahi duenak, aurrez biltegian bertan ordua eskatu beharko du. Behin autoaren diagnosis egin eta gero, CADEMekin kontzertatutako edozein tailerretara joateko aukera izaten da; erabiltzaileak, eskulanari dagokionez, kasu batzuetan %30erainoko beherapena izango duelarik.

Egindako kalkuloen arabera, eta eguneroko ordu guztiak betetzen badira, 456 ibilgailu errebisatuko dira apirilaren 3ra bitartean.



Landaretzaren birsorkuntzari buruzko azalpenak emango zaizkie umeei.

Zuhaitz Eguna larunbatean

Garagartzako Udal mintegia inauguratuko da

Azken hiru urteetan bezala, Garagartzan burutuko da aurtego Zuhaitz Eguna, Garagartzako auzoa eta Atxabalpe futbol zelaiaren artean dagoen Udal-Mintegia inauguratzeko aprobeztatuko den eguna hain zuzen.

Zuhaitz Egunerako egitarauari goizeko 9.30etan emango hasiera, neska mutikoak herriko plazan bildu eta Garagartzarantz oinez abiatzen direnean. Garagartzako Mintegira iritsi eta gero, zuhaitz landaketari ekingo zaio eta ondoren, joaten direnak ogitartekoa jan

eta zerbait edan ahal izango dute. Tartean, mintegiaren inaugurazio ofiziala ere egingo da eta horrenbestez, egun honetarako antolatu diren ekintzei bukaera emango zaie.

Aste osoan zehar, Arrasateko ikastetxeetako seigarren mailetakoko 360 neska-mutiko Garagartzako Mintegian izan dira, zer den ikusi eta bere funtzioa ezagutzeko. Neska mutiko horiei landaretzaren birsorkuntzari buruzko azalpenak eman zaizkie eta haziak landatzeko aukera ere izan dute gero.

LANDALUZE
JATEKO FINAK
ITURRIOTZ KALEA, 7 + TFNOA. 79 14 86
ARRASATE

I
R
T**A**BERNA
T
I
Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80



Ehundaka lagun bildu zituen lehen kontzentrazioa.

Garrasi Ixila Arrasaten

Emaitza positibotzat jo zuten antolatzaileek

Joan zen ostiralean ospatu zen lehen aldiz eta astelenean bigarrenez Garrasi Ixila-Gesto por la Paz-ek deituriko lehen kontzentrazioa. Euskal Autonomi Elkartearen zehar hainbat kontzentrazio egiten dira edozein aldetako hilketen kontrako jarrera adierazteko. Pertsona kopurua ugaria izan zen eta nahiz eta manifestaldia bukatu ondoren antolatzaileek emaitza positibotzat jo, Arrasate Press-en ezinezkoa egin zaigu inorekin hitz egitea. Oraindik ekimen berria dela eta, izan dugun informazio

bakarra honako hau izan da: elkartean izan duten bilera batean komunikabideen aurrean hartu beharreko jarrera aztertu dutela. Bertan garbi utzi dute momentuz ez dutela inolako azalpenik emango, eritzi pertsonalak daudela bakarrik, planifikazio zehatzik gabe. Aurrerantzean ere eta edozein aldetatik datorren indarkeriaren ondoriozko heriotzaren aurrean, kontzentrazio isila egingo da ordu laurdenez, hurrengo eguneko iluntzeko zortziretan eta betiko tokian, hau da, herriko enparantzan.

Haratuzteetako egitaraua ia prestatuta

Haratuzteetako egitaraua dagoeneko erdi-prestatuta dago, behintzat aurrekontua onartu da eta gauza batzuk, zehaztu dira. Egitaraua aurrera eramateko, 3.170.000 PTA daude. Argazki-rallye-ak emango die hasiera aurtengo Haratuzteei otsailaren 28an. Larunbatean, hilaren 29an, Play-Back jaialdia aipagarrien. Ekintza gehienak, astearterako utzi dira: umentzako ekitaldia arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean, plazan dantzaldia, sardina lurperatzea eta mozzorro lehiaketa.

Argi dagoenez, iazko egitarauri begiratu zergo, ez dago alde handirik; diferentzia, jendearen irudimenak jarri beharko du.



HITZALDIAK

PUBLIZITATEA ETA KONTSUMISMOA



- 1. eguna: **Publizitatea eta motibazioa**
- 2. eguna: **Publizitatea eta kontsumismoa**




Emaileria: **Luis Belaustegi (Soziologoa)**
Otsailak 19 eta 26 asteazkenak Arratsaldeko 3etan AEDn


EKIN emakume taldea



Jubilatuak oso gustora daude Elena Arregi Gizarte Laguntzaileak eurekin egiten duen lanarekin eta publikoki eskertzea eskatu digute. Igeriketa ikastarora hogaitemarreko bat joaten da, eta yoga, eskulanak eta irteeretan ere partidetza polita dago. Oraindik hurbildu ez diren guztiak gonbidatu nahi dituzte, "Animoa ez galdu, hori bait da irauin arazten diguna", esaten dute.



Benidormen ere ospatu zuten San Sebastian bezpera, bai han elkartutako euskaldunek behintzat. Pedro Zumelaga arrasatearrak bidali digu argazki hau: "hemen danak hartzen daue parte, andraszkuak, mutikuak eta batez be pertsona nausixak..." Argazkian, jarrita, **Felisa Zubizarreta**, bere aitzia **Felisa** eta apur bat gordeta **Miren Velez de Mendizabal** arrasatearrak. Tanborra jotzen aurrengo **Pedro Zumelaga**. Gorantziak danoi Benidormetik". Eskerrikasko, Pedro, zuri.



Zenbat aldiz etorri ote zaigu Ospital Zaharreko gure egoitzara, "Que hay, bihotza!, ni etxe honetan jaio nintzen, bihotza" esanez. Aspaldiko kontuak gogora ekartzen zizkion nonbait gure etxeak. Joan zen ostiralean kamioiak harrapatuta hil zen **Doloritas**. Iturbiden bezala Arrasateko kaleetan ere hutsune handia. Goian bego!

Lore lurrindegia
Olarke kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

VE ECUADOR
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

BAKAILO ETXEA
Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07

SAMEGO GARBIKETAK
Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39




Izen
PROPIOAK

● **Marga Garmendia Guinea**, 28 urteko atxabal-tarra arduratuko da Arrasateko Udala beste udal batzuekin konpatzeaz. Margak Geografia eta Historia ikasi zuen eta Deba Garaiko Mankomunitatean ibili da hiru urtez enplegu eta formakuntza zerbitzuan.

● **Anne Igartiburu**, 22 urteko elorriotarra izango da ATBketan lehiaketako aurkezlea ATBn. Harreman publikoak eta hizkuntzak ikasi ondoren, Ikerlanen ari da lanean Harreman Publiko eta Marketing sailean eta dokumentalista moduan.

● **Rosa Mari Mondragon**, 24 urteko aramaiotarra izango da Arrasate Press-eko kazatari berria. Leioako unibertsitatean ikasi ondoren, orain arte Aramaion aritu da lanean, ikastolako umeen garraio lanetan.

▲
Gaurko Berri taldearen orain 22 urte sortu zen doinu gehiago dantzatzeko aukerarik ez da izango, taldeko partaideak musika-iharduerarekin bukatzea pentsatu bait dute. Hasiera batean, taldea **Manuel Escobar, Migel Kabero, Luis Maria Blazquez** eta **Josu Errastik** osatu zuten. Gerora, Manuel Escobarrek alde eta **Karlos Perezek** hartu zuen bere tokia. Argazkia, lau partaideen itxurak argi adierazten duenez, hasieretakoa da. Lerro honen gainean Iñaki Aranak taldekoei egindako karikaturak.



SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



DAMKART

Estetika eta Ileapaintzaile Eskola

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR




Ikus dezakezuen moduan dago **Gazteluondo kaleko petrila**. Kotxeren batek jota aspalditxotik dago jausi eta apurtuta. Ea noiz ailegatzan zaion konpontzeko ordua...



Aretxabaletako **Kurtzebarri eskolako neska multikoek** galdera pila galantza ekarri ziguten eta baita zorrozta-sunez egin ere. Itxuraz eskolan kazetaritzako lanen bat egitekotan dira orain eta euren herriko albisteak bilatzen saiatu eta **Aretxagazetakoei** laguntzeko prest azaldu zitzaizkigun. Ia, bada!



Joan zen ostiralean, **SS-77** taldeak abestien errepertorio osoa ezagutzera eman zien Arrasateko gaztetxean, hurbildu zirenei. Esan behar jende askok jarraitzen duela, arrasatear talde honen ibilbide musikala, eta giro atsegina izan zen.



Birmoldaketa dontsua ailegatu da **AEDko bulegoetara** ere. Pablo Urangako 4etik pareko lokalera aldatu dute langileen-tzako egoitza eta telefonoa berriz lehengoa izango da: 79 54 46. Aurrerantzean afaritarako eta gainerako ekintzatarako leku gehiago eta komenentzia hobea oraingo AEDn.

Deba bailaran oso entzuna den IRRATI BATEK

MERKATAL AGENTEA BEHAR DU

Baldintzak: euskalduna, Bergara edo Arrasatekoa, 25-35 urtekoa eta salmenta arloan (aseguru, liburu, publizitatea,...) gutxienez bi urteko esperientziaduna.

Baldintza ekonomikoak hautagaiaren esperientzia eta balioaren araberak.

Interesatuak idatz, kurrikuluma erantsiz, postakutxa honetara:
1643. DONOSTIA



Paseko ordua

Ondo eta gaizki egindakoak gogoratzeko garaia da; ondo egindakook aurrerako bidea zabaltzen dutelako eta besteak, ordea, itxi egiten dutelako. Talde batzuk pasea poltsikoan dute, beste batzuk oraindik lor dezakete. Hori lortuz gero, pasea egiteko ordua, atezainaren moduan.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27

IOSEBA KONTENEDOREAK



Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

AGUSTIN

Auto-soinua
Karburaioa
Autoarentzako
osagarriak

Uribarri Etorbidea, 16
ARRASATE 79 73 58



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Los Heredia	13	9	3	1	79	42	21
Akaitegi Express	12	8	3	1	99	31	19
Fosforos	13	8	2	3	62	33	18
Adobe	13	8	2	3	46	38	18
Zulu's	12	8	0	4	76	39	16
G.P Noski	13	6	4	3	61	32	16
Jubilatus	12	5	3	4	51	60	13
Kriskibalda	12	5	2	5	50	38	12
S. Ind. Ugarte	12	5	1	6	37	44	11
Koxkas	12	3	4	5	47	65	10
A. Kristaldegia	12	4	1	7	30	41	9
Uglys	12	2	1	9	31	73	5
B. D. L.	12	1	1	10	23	85	3
T. San Josepe	12	0	1	11	28	99	1
Expert	—	—	—	—	—	—	—
Los Manchas	—	—	—	—	—	—	—
Neanthertal's	—	—	—	—	—	—	—
Tronkoteak	—	—	—	—	—	—	—
Total	172	72	28	72	720	720	172

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
La Banda	12	10	1	1	62	22	21
Fasprint	12	8	3	1	55	22	19
Sibilius Rover	13	7	3	3	39	31	17
Jo ta akabau	12	8	1	3	45	28	17
Los Motz	12	8	0	4	74	31	16
Danok Lagun	12	7	2	3	51	27	16
Lorategi Potroak	12	6	3	3	55	34	15
Navarros	12	7	1	4	41	28	15
Anbotoste K.T.	13	4	2	7	35	61	10
Txintxes Osorik	12	4	2	6	30	42	10
Ganbelas	13	3	1	9	29	47	7
Bukanak	12	2	1	9	29	58	5
Inter de Alima.	12	1	1	10	28	74	3
Oleee!	12	0	1	12	28	90	1
Maria del Monte	—	—	—	—	—	—	—
Gau Azkenak	—	—	—	—	—	—	—
MKA	—	—	—	—	—	—	—
Totxus	—	—	—	—	—	—	—
Total	172	75	22	75	595	595	172

SAILKATUAK

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida Haizea	15	13	0	2	76	17	26
Argi Ibili Mapfre	15	12	1	2	113	42	25
Gnu Seg. Bilbao	15	12	1	2	53	14	25
AEK	15	11	3	2	65	39	25
Bar Kajoj	15	11	0	4	83	30	22
Diego Antonio	15	9	2	4	56	44	20
New Laso Arregi	15	8	2	5	52	38	18
Txokeros	15	6	2	7	50	43	14
Aizpun bila	15	6	0	9	51	81	12
ATB	15	6	2	8	59	72	14
Sokoakoak	15	4	3	8	45	60	11
Aurrera Bolie!	15	4	2	9	43	64	10
Arrasate Press	15	4	1	10	30	57	9
T. Monterrey	15	2	4	9	41	82	8
Bayer de Leniz	15	2	1	12	34	88	5
Shaktale	15	2	4	9	35	72	8
Whiskeria Linde	15	3	0	12	50	89	6
Alaves	—	—	—	—	—	—	—
Total	270	121	28	121	955	955	270

D taldea


	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
A. Kirolak	15	12	1	2	63	24	25
Artzankos	14	11	1	2	62	28	23
V. C. Daglas	14	9	3	2	71	26	21
Bar Artano	15	9	1	5	60	46	19
Pepelus	14	8	2	4	49	31	18
Bizkorrak	14	8	1	5	46	35	17
Notxingan Flo.	14	8	1	5	49	39	17
Hirei	14	8	1	5	49	29	17
Camerun's	14	7	2	5	59	43	16
Ghana	14	7	1	6	51	40	15
Arrasate Com.	14	6	2	6	28	38	14
Nagixak	14	4	2	8	33	57	10
Kakajauri	14	3	1	10	30	52	7
Ezkinako Hon.	14	2	2	10	30	70	6
Sukumurus	14	0	1	13	20	64	1
Atxanta ke te...	14	0	0	14	19	94	0
Balake	—	—	—	—	—	—	—
Resakas	—	—	—	—	—	—	—
Total	226	102	22	102	719	719	226

JMA JMA



Jende asko eta baloi bakarra. Denak eskuratu nahi eta baloia aidean, inorena ez den terrenoan. Horrelako nahasteak, eta handiagoak, sarritan gertatzen dira, ez bait da erraza izaten hain zelai txikian baloia behar beste denboran kontrolatzea. Horrek atezainaren eskuetan bukatu zuen.

Gure-Leku taberna



Zarugalde
Arrasate
79 20 29

EMAITZAK

A taldea

Los Heredia 4 Uglys 4
Koskas 4 G P Noski 4
Akaitegi Express 8 A. Kristaldegia 1
Adobe 5 Zulus 3
Kriskibalda 1 Fosforo's 3

B taldea


Los Motz 2 Sibilus Rever 5
Bukanak 4 Danok Lagun 8
Anbotoste K. T. 3 La Banda 12
Txintxes Osorik 1 Jo ta akabau 4
Inter de Alimañas 7 Oleee!!! 5

C taldea

Diego Antonio 4 Bar Kajoi 3
Aizpun bila 1 Shaktale 3
Sokoakoak 3 Monterrey Taberna 3
New Laso Arregi 7 Arrasate Press 1
Gnu Seg. Bilbao Alaves
Whiskeria Linde 2 Argi ibili Mapfre 11
Aurrera Bolie 1 Adelaida 9
Txokeros 9 Bayer de Leniz 2
ATB 2 AEK 7

D taldea

Nagixak 4 Camerun's Trikiti 3
Pepelus 4 Bizkorak 1
Sukumurs Anboto 1 Arrasate Kiroiak 5
Ghana 5 Ezkiñako ontzak 1
Arrasate Com. 0 Hirei 3
Bar Artano 4 Notxingan Florest 6
V. C. Daglas 3 Kakajauri 2



LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 75

Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate

STIHL Leniz Motor

- Nekazal makinaria
- Basogintzarako tresnak
- Lorazaintza
- Motozikleten salmenta eta konponketa

Gipuzkoa Etorb., 9 ARRASATE Tfnoa: 79 11 78



Txutak

Oraindik badaude aukerak

Bigarren faserako sailkapena kolokan duten taldeei, partidu bakar bat geratzen zaie beraien egoera behin betiko argitzeko.

A multzoan guztia erabakita dago, sailkatuak *Los Heredia*, *Akaitegi Expres*, *Fosforos*, *Adobe*, *Zulu's* eta *G.P. Noski* izan dira.

B multzoan, berriz, gauzak ez daude hain garbi. *La Banda* eta *Fasprint*-ek sailkapena lortu dute. *SibiliusRover*, *Jo ta akabau*, *Los Motz*, *Danok Lagun*, *Lorategi Potroak* eta *Navarros* taldeek oraindik borrokatu egin beharko dute. Duda barik, *Los Motz - Fasprint*, *Potroak Lorategi - Txintxes Osorik*, *Danok Lagun - La Banda* eta *Navarros - Jo ta akabau*

partidoak erabakiorrak izango dira.

C multzoan, hurrengo faserako pasea ematen duen postu bakarra gelditzen da, gainontzeko bostak hartuta daude eta. *Adelaida*, *Argi Ibili*, *Gnu. Seg. Bilbao*, *AEK* eta *Bar Kajoi* sailkatuta daude eta falta den postua betetzeko prest *Diego Antonio* eta *New Laso Arregi* taldeak. *Diego Antoniok* *AEK* ren aurka jokatu beharko du, *New Laso Arregik*, berriz, *Shaktale* taldea izango du aurrean.

D multzoan, *Arrasate Kirolak*, *Artzankos* eta *V. C. Daglasek* dagoeneko bigarren faserako pasea lortu dute, beste hiru postuetarako bost talde: *Artano*, *Pepelus*, *Bizkorak*, *Notxingan Florest* eta *Hirei*. Datorren astean, *Pepelus - Arrasate Comercial*, *Artzankos - Bizkorak* eta *Notxingan Florest - Hirei* partiduetan gertatzen denak argituko du guztia.

Egin daitezkeen galdera guztien erantzunak... datorren astean.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEAN

A taldea

Koxkas	Talleres San Josepe
Jubilatus	Uglys
Akaitegi Express	Sum. Ind. Industriales
Kriskibalda	Arrasate Kristaldegia
Zulu's	BDL

B taldea

Los Motz	Fasprint
Potroak Lorategi	Txintxes Osorik
Bukanak	Inter de Alimañas
Danok Lagun	La Banda
Navarros	Jo ta akabau

C taldea

Diego Antonio	AEK
Aizpuz bila	Whiskeria linde
Sokoakoak	Aurrera bolie!
New Laso Arregi	Shaktale
Monterrey Taberna	Arrasate Press
GNU Seg. Bilbao	Bar Kajoi
Txokeros	Adelaida
Bayer de Lenitz	Argi ibili Mapfre


D taldea

Nagixak	Kakajauri
Pepelus	Arrasate Comercial
Sukumurs Arboto	Atxanta ke te merece
Artzankos Udalaiz	Bizkorak
Gahana	Camerun's Trikiti
V. C. Daglas	Ezkiñako ontzak
Notxingan Florest	Hirei

RUMBA

taberna

Iturriotz Kalea
ARRASATE



EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabilioia.
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41 ARRASATE

● Zure autoaren injekzioarekin arazoak dituzu? Hala bada, jakizu gasolinezko injekzio mota guztietan espezialista den zerbitzua dela gurea, merkaturuko makinarik sofistikatuenaz.

Urtero bezala, bailarako bertsolarien jaialdia burutuko da asteburu honetan Apotzagako Auzo-Etxe Elkartean. Garai batean, jaialdi hau lehiaketa gisa planteatu zen, baina gaur egun jai eta omenezko giroa da nagusi. Aurtengo omendua, Andres Gabilondo izango da, bertsolari izan barik bertso-laritzaren alde lan handia egin duen elosuarra.

— Noizdanik bertsozale?

— Bada, ez dakit. Ustedut lehen bertso-giroa kalean zegoen gauza bat zela. Erromeriak goiz bukatzen ziren, eta bukatzen zirenean kuadrilan biltzen ginen, bat-bat besteari bertsoak botatzeko. Bertsoa zer zen ez genekien, baina inori zerbait esan behar bazitzaion horrela esaten zitzaion.

— Bakarrik lagunarteko bertsoak izaten ziren? Ez zen bertso saiorik antolatzen?


— Lagunarteko gauza izaten zen, umorezkoa, dirurik ere ez genuen erabiltzen eta, zerbait egin behar! Batzuk baziren bertsoan ibilitakoak, ideadunak, baina gehienak ez. Askotan postura giroak agintzen zuen, "botatzen ez dabenak litro-erdi ardao" esaten zuen batek, eta ez ordaintzearren inor ez zen gelditzen bertso-rik bota barik; txartxoago ala onetxoagoa denek botatzen zuten, hori izaten zen. Postura giroa beti izanda, ni hi baino gehiago nauk eta horrelakoak asko ezagutu ditut.

— Zentzu horretan, bertso munduan aldaketa handia izan da, ezta?

— Bai, orain beste gauza bat da. Lehen bertsoa ahokada handi bat izatera mugatzen zen, nonbaitetik

Andres Gabilondo

Bertsolariek omenduko duten bertsozalea



ibili eta azkenean ahokada handiena botatzen zuenarena izaten zen bertso-rik onena, behintzat txalo gehien berak jasotzen zituen. Orduan ere, baziren bertsoa zer zen ondo zekitenak, neurria ondo hartzen ziotenak eta esan behar zena une aproposan esaten zutenak, baina orduko bertsolariek erromeria osteko hura gehiegi ezagutu zutela iruditzen zait.

— Gaur egun posible izango litzateke desafio giro

hura berreskuratzea?

—Gauzak bere lekua hartzen doaz, bertsoa ere bai. Bertsoarentzat ez litzateke mesede izango giro hura bueltatzerik.

—Orduko bertsolariak ala oraingoak?

— Bertsolari onak lehen ere oso gutxi ziren. Gehienbat, urtean bi aldiz plazan Uztapide, Mitxelena, Zepai... ikus genitzakeen, herriko jaietara eta ez bait zituzten ekartzen. Aukera

gutxi izaten genuen bertsolari onenak entzuteko, baina bai ondo aprobetxatu! Giroak ere, ez zuen laguntzen, orduan ez bait zen erraza euskaraz ezer egiterik, gaizki ikusita zegoen.

— Deba Garaiko bertsolari onenak?

— Xanti Iparragirre, Txarrugalde, San Miguel hiru anaiak, Patxi Goikolea, azken hori nire ustez bertsolari baino bertsozale eta bertso irakasle izan den arren....

— Inoiz ez duzu bertsoan egin?

— Batzuk idatzi izan ditut eta ondo bustitakoan, bota ere bai.

— Beraz, noizbait bertso-paper lehiaketaren baten edo hartuko zenuen parte?

— Ez, lehiaketetan ez dut parte hartu, jendeak eskutatakoan eta idatzi ditut eta gero neuretzat, etxerako.

— Jon eta Aitor Sarasua, Arantzazu Loidi, Jon Iñaki Izarzelai, Danel Goikolea... zure eskutatik pasatutakoak dira, ezta?

— Bai, baina guk bakarrik bertsoa zer den azaldu diegu, bertso batzuk egin gero plazan kantatzeko. Zeharo lan txarra ez genuen egingo, hango eta hemengo plazetan dabilza eta.

— Eta larunbateko omenaldia?

— "Omenaldi" hitza afari horri zerbait ipintze arren jarri diote, nik bertso-munduan egin dudana ez duelako omenaldirik merezi. Umeekin egin dugu lana, gainera gustora egin dugun lana eta horregatik ez dut uste omenaldirik merezi dudarik, baina ni gustora joango naiz, zergatik ez?

— Jaialdirako izango duzu bertsoen bat prestatuta?

— Prestatuta ez. Akaso bertan okurritutakoa bota beharko dut.

— **“Lehen, bertsolari onena ahokada handiena botatzen zuena zen”**

Antonio: lagunik onena, bere makila

Argirik gabeko mundua imajinatu ezazue... egin duzue? beltza, ezta? Antonio Balanzategi, ilunpetan bizi da bista galdu zuenetik, iluntasunaren erresuma beltzean. Bere begiek inguru argi eta koloretsua ikusteko gaitasunik ez duten arren, eta gaztetan ezagutu zuen ingurunean eman diren aldaketez ohartzeko gai ez bada ere, beste edozein baserritar moduan bizi da.

Bista gastatu

"Poliki poliki galdu nuen bista, aparteko arrazoi barik, tartean ez zen gaixotasun edo istripurik izan... gastatuz joan zitzaidan. Orain hogeitaz urte hasi nintzen konturatzeko, begien sendagilearengana jo nuen eta erremediorik ez zidan eman. Bost urteren buruan, zeharo galdu nuen bista". Lasaitasunez hitz egiten du Antoniok, ezinbestekoa zena halabeharrez onartuta, horrelako egoera batek bizitza ezin duela geldiarazi jabetuta, gehienbat muga eta oztopoak jarriko dizkiola. "Bista galtzeabapatekoa izan balitz, behar bada oso gaizki hartuko nuen, baina gauzetaz ohartzeko denbora izan nuen. Errealitatea hor zegoen, eta erremedio bakarra gauzak etorritako moduan onartzea izan zen, besterik ez. Bista

gastatuz joan zitzaidan bost urteetan inguruari beste modu batean begiratzeko, gauza txikienetan ere fijatuz. Gaur egun, etxe inguruan behintzat, makila


hartu eta ikusiko banu bezala moldatzen naiz".

Makila du Antoniok lagunik onena, inguruko laguntza baina preziatuagoa. "Makila barik pauso bakar

bat ere ez nuke egingo. Lehen txaku txikitxo bat ere izan nuen, zinzarria jarri nion, baina ez nuen jakiten nondik nora ibiltzen zen eta arriskutsua zen. Makila hobea da, neure martxan ibil naiteke eta, inori enbarazu egin barik".

Bizitza arrunta

Etxe ingurua ederki asko ezagutzen du Antoniok, buruz noski. Goizean goiz jaiki, gosalduta, iturrira ur bila joan eta etxeko lanak egiten ditu: aizkorarekin egurrak txikitu, parrak zorrotzu, segan... egunean egunekoak, sasoi onean dagoenez edozein baserritarrek egingo litzuzkeen moduan. Arratsalde partean, ahuntzak hartu eta basora eramaten ditu, afal ordura arte. Baserrira bueltatu, afaldu eta irratia entzun edo etxekoekin hitz eginez joaten zaio denbora, logureak oherako bidea hartzera behartu arte. Aipatutako guztia, eta gehiago, erraztasunez egiten du orain, baina itsutasunaren lehen egunetan ez



Baserriko lanak Antonioren eguneroko eginbeharra izaten dira.

zen horrela, "gaizki pasatu nuen, denbora guztian galduta sentitzen nintzen, ezer egin ezinda".

Besteonak bezala, Antonioren egunek, ez dute alde handiegirik bata bestearekin konparatuta, aparteko zaleatasunik ez dauka eta. "Itsu gelditu nintzenean, etxera etorri zitzaizkidan ONCEkoak laguntza eskainiz, baina neure kasa moldatzea nahiago nuela esan nien. Braille-a ikasteko aukera ere izan nuen, baina sekulan ez dut irakurtzeko zaleatasunik izan eta ez nintzen animatu".

Dena dela, egunak ez dira Antoniorentzat ere sekula berdinak izaten, bere iluntasunean aldaketak eragiten dituzten faktore ikustezinak gertatzen dira eta. "Beti esan ohi da,itsuok bistarik ezean beste sentidu batzuk gartzetzen ditugula, eta egia da. Nik ezin dut begiz ikusi, bai-



Makila barik Antoniok ez du pauso bat ere ematen.

na entzumena eta ukimena-
ren bidez besteek ikusten ez
dituzten gauzak somatzen di-
tut: egun garbietan, nahiz eta

ez atsegin, eguzki-izpien dis-
dira nabaritzen dut, argita-
suna; egun goibeletako he-
zetasuna, errekatxoan zu-

rrumuruak, haizearen al-
daketa txikiak, hurbilago
edo urrutirago botatzen ari
diren pinudiaren garrai-
siak... Bereziki entumena
landuta daudat, baina baita
oroimena ere: aspaldi ikusi
gabeko jendea ahotsaren bi-
tartez ezagutzen bait dut. Bai
baino gehiago harrituta gel-
ditu izan zait, baina nola
ezagutu nauk? ez da lanketa
berezia izan, berezkoa bai-
zik".

Oroimenekoa ikusi

Oroimen ona du Anto-
niok, baina ez du nahi
oroimenean bizi izaterik.
Iragandako bizimoduari ez
dio garrantzirik ematen, be-
rak gordetzen dituen irudiak
iraganekoak izanda ere.
"Lagunak aurpegi gazteekin
ikusten ditut, baita neure
burua ere, ezin da bestela
izan. Baserri ingurua lehen
zen bezala gogoratzen dut,
baina saiatzen naiz egin di-
ren aldaketak irudimenare-
kin lantzen, kontaktzen dizki-
daten aldaketak imajinatzen.
Ahal izanez gero, zer ikusi
nahiko nukeen? Ez dakit, ez
daukat bereziki zerbait ikus-
teko ilusiorik".

Elkarrizketa bukatuta,
Antoniok makila hartu eta
egurak txikitzera bideratu
ditu bere pausuak, edozeinek,
gutxi ala gehiago, kostata
egingo lukeen lanera. Arra-
tsaldean, ahuntzak, basora
eramango ditu zintzariez
lagunduta, "denbora emate-
ko" dio berak.

Mapa mugikorra

Uribarri auzoko Kalemendi baserri inguruko bide eta gorabehera guztiak buruan dauzka Antonio Balanzategik, bertan bizi izan bait da berrogeitamasei urtetan.

Pista berriren bat egiten dutenean, zuhaitzen batzuk landatu, pinudiren bat botatzen duten bakoitzean edota bidegurutze berriren bat irekitzen dutenean, Antonio bere kabuz ikustera joaten da, terrenoa makilaz arakatzuz ahalik eta ondoen ezagutu arte.

Zentzu horretan, Antoniok inork baino hobeto ezagutzen du ingurunea, egune-
roko ibileretarako beharrezkoa izanik, xehetasun txikiak ere kontuan hartzen bait
ditu. "Etxeko gazteak ere, ni baino gutxiago fijaszen dira; nik kontuan hartzen
ditudanak beraiek ez dituzte hartzen. Baserriko bueltan, kilometro batera dagoena
ederki ezagutzen dut; hori bai, gora aldera, behekaldera joateko joerarik ez dut
izaten".

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE


7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89



Pilotarien Batzarra Arrasaten

Iaz Gemikan burutu zen moduan eta aurreko urteetan beste herri batzutan egindako moduan, aurten Pilotarien Batzarra Arrasaten izango da, ekainaren 21ean. Egun hori berriz Arrasaten burutu arte, gutxienez hirurogei urte pasatuko dira, beraz izugarrizko garrantzia dauka. Ekainaren 21ean egin beharreko ekintza guztiak ahalik eta ondoen antola daitezten, Pilotarien Batzarreko ordezkariak Arrasatera etorri ziren. Meatz Errekako Elkartean bazkaltzeaz gain, bertako pilota-arduradunekin elkarrizketatu ziren gauzak antolatzen hasteko. Besteak beste, hor dituzue argazkian Ogueta, Txomin Altube, Akarregi eta Palacios kanpotik etorritakoen artean; bertakoak, berriz, Osinaga, Lizarralde, Galarra....




Centraljet bigarren fasean

Joan den asteburuan, justu samar irabazi zion Centraljet-ek Amigos taldeari, 78-80. Dena dela, taldeak aurrez eskuratuta zuen igoera fasea jokatzeko pasea; beraz, ez zuen garrantzia handiegirik. Igoera faseari begira, Centraljet, sailkapeneko bostgarren postutik abiatuko da, hirugarren sailkatuta dagoenak beste puntu baditu ere. Bigarren faseari hilaren 23an emango zaio hasiera; beraz, arrasatearrek aste bete daukate atsedena hartzeko. Ea bada, aurten mailaz igotzerik lortzen duten! nahiz eta dirua medio, gero zail izan igotzea.

Hurrengo partidua

Beasainen jokaturako partiduan beste porrot bat jaso zuten Izagirre-ren mutilek. 3 eta 0 irabazi zuten beasaindarrek, eta ez da arraroa, zerbaitegatik bait daude sailkapeneko lidergoan. Beasain hirugarren mailako talderik sendoena da, duda barik, helburu bakarra, mailaz igotzea duen taldea hain zuzen ere.



Azken emaitza txar hori ahaztu eta aste honetan jokatu beharreko partiduari baikortasunez begiratu behar diote mondragoetarrek, aurrez erraza ez dela izango jakinda. Getxo taldea izango da Atxabalpeko bisitaria, sailkapeneko zortzigarren postuan dagoena 25 puntu eta 3 positiboz.

Mondrantzat igandekoa derrigorrez irabazi beharreko partidua da, oraindik mailaz igotzeko promozioa jokatzeko aukerak ez bait daude galduta. Lau taldek jokatu dute promozioa eta Mondra, liga amaitzeko hamabost partidu gelditzen direnean, hirugarren sailkatuarengandik bost puntutara dago. Igandean irabaziko ez balu, urrunegi geldituko litzateke promoziorik. Beraz, nola edo hala, irabazi beharreko partidua.

ITSASKI
arrandegia
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Begoña
lurrindegia

Drogeria / Jostailuak
Opariak
Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Txanda eskatzeko: 79 81 11
79 81 00


Olarte kalea, 43 Arrasate

PODIUMA

IBAN

AGIRREURRETA

Rugbyan indarrez



Iban Agirreurreta orain lau urte hasi zen rugbyan anaiak animatuta. Orain 19 ditu eta gero eta gutorago ari da. *"Kanpotik ematen duen inpresioa kirol zakarrarena da, eta hasiera baten denek horixe esaten digute. Azkenean, kontaktu fisiko handia dago eta horri begiratzen zaio, baina lesio aldetik futboleko baino arrisku gutxiago dago. Kolpeak eta baltzunak asko, baina lesio larriarik ez da izaten rugbyan"*.

Prestakuntza berezirik ez ei du behar, astean hiru entrenamendu eta gainerakoan partidu bezperetan norbere burua piska bat zaintzea. *"Indarra, kontakturako beldurrik ez izatea eta baloia pasatzeko bista ona"* aipatzen ditu beharrezko ezaugarri gisa Ibanek. Berari baloia eskuetan edukitzea gustatzen zaio, *"ez dakit hori ona edo txarra den"* eta gero indarretik ere ondo dabilela uste du. Jokatu eta gero pozik iriteten duen horietakoa da.

Beste leku batzuetara joaten direnean zelai berdean eta garbi ibili ohi dira, baina Garagartzakoan lokotzarrean ibiltzea beste aukerarik ez dela izaten esaten du. Arrasateko rugby

zelaiarekin daukaten kexu handiena, eta dagoeneko askotan kaleratu dutena, ez da kanpo txarra izatearena, denboraldi hasierarako prest ez egotea baizik. *"Lehengo buelta osoa kanpoan jokatzera behartzen gaitu eta hori nahiko txarra da errendimendu aldetik. Horretarako irtenbideren bat beharko genuke eta ez da eskatzen dugun lehen aldia ere"*. Emaitzei dagokienez, Ligan ez daude oso ondo, maila bat lortu ondoren eutsi egin behar zaio eta. Hamar taldetatik zortzigarren daude une honetan.

Utopien artean baina desio lukeen gauzetan aipatzen du Euskadiko selezioan jokatzeko eta errazago lor daitezkeen artean, Garagartzako zelai ikusle ez baterik ikustea. *"Oraingoz zaletasun gutxi dago baina gero eta jende gehiago hurbiltzen da taldea animatzera eta gustora gaude"*

◆ Pilotan berri onak

Bolada txar bat pasatu ondoren, badirudi pilotariak martxa onean hasi direla. Deba Arroako txapelketan, Antzuolaren kontra jokatu zuten eta hiru partiduetatik bi irabaztea lortu; datorren astean, Oñatin, Aloña Mendiko pilotariak izango dituzte etsai. Hori alde batera, Deban beste torneo bat jokatzeko ari da; bakoitza bere mailan, Iñaki Korta eta Josu Errasti finalerako sailkatuta daude, Lordi Zuazubiskarrek, berriz, finalerdia jokatu beharko du; beraz, arrasatearrak nagusi. Euskal Ligaren barruan, igandean Iturripen, eguerdiko 12etan Idiazabalgo Atxurbideren aurka jokatu dute arrasatearrek.

◆ Futbitoan bikain

Arabako ligako lidergoan daude Cnes. Brues futbito taldeko mutilak, gainera liderrak direla erakusten. Joan den asteburuan Gasteizen jokatu zuten, Bar Dolar taldearen aurka eta 0-8 irabazi zuten. Larunbatean, arrasatearrak Iturripen jokatu dute, arrasaldeko betan Bugmar taldearen aurka.

◆ Rugby partidua

Joan den larunbatean lagunarteko partidua jokatu ondoren, igande honetan Rugby taldeko mutilak berriz itzuliko dira konpetizio ofizialera. Eibarren aurka jokatu zuten jokalaririk berri ugariarekin, ondorioz emaitza: 30 - 6 eibartarren alde. Igandean, eguerdiko 12etatik aurrera, Arrasate - Mungia.

◆ Emakume futbolarien partidua

Beste partidu bat jokatu dute aste honetan Mondrako neskek, ez erraza gainera, Alde Zaharra taldea etorriko bait da. Arrasatearrak, joan den asteburuan Orion berdindu eta gero, gogoz daude. Zaletuen laguntzaren beharra ere izango dute partidua irabazteko.

Gabriel Elorriaga Dka.

**Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78

MIREN

APAINDEGIA


Zarugalde, 23-2. Ezk.
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90

Zergatik gero eta hizkuntza atzerritar gehiago?

Europaren ezaugarrietako bat bertako kultura eta hizkuntzen ugaritasuna da, eta hizkuntzaniztasun hau errespetatuz eta indartuz eraiki behar da batasuna.

Europako hizkuntza guztiek -ofizial, nazional nahiz eskualdeetakoek- bizi eta garatu egin behar dute. Nahitaezkoa da hizkuntzekiko begirunea. Gure hizkuntzei bizirik eustea Europa eraikitzekeo prozesuaren eta gure europar nortasunaren parte da.

Beraz, hizkuntza bakar bat Europa osorako proiektu irreal da: Ingelesa, Frantseza, Alemana, Espainola, Italiara... Zein izango litzateke hizkuntza bakar hori? Gaur egungo joeraren arabera, nazioartean komunikatzeko hizkuntza bat ari da nagusitzen, ingelesa, beste hizkuntza nazionalen ondoan betiere; eta horrela, nolabaiteko



izaera ofiziala hartzen duen hizkuntza horrek ez ditu besteak baztertzen eta gutxiengoaren hizkuntza bihurtzen.

Europar politika hizkuntza arloan, atzerriko bi hizkuntzaren edo gehiagoren ikaskuntza bultzatzea da, eta batez ere auzo edo mugakide den herrialdeko hizkuntza

hitz egin beharra azpimarratzen da, mugaz gaindiko harremanak sakondu ahal izateko.

Atzerriko hainbat hizkuntza jakiteak bi helburu nagusi ditu:

- Pertsonen elkar komunikatzeko gaitasuna areagotzea.
- Enpresek mundu-mai-

lako merkatuan harremanak izateko bidea erraztea.

Atzerriko 2 edo 3 hizkuntzatan komunikatzea lortzen badugu etorkizunean, Europako Elkartearen kohesioa eta garapen ekonomiko tekniko, zientifiko eta kulturala bultzatuko ditugu.

Atzerriko zenbait hizkuntza jakinez gero, benetan egiazkoa da pertsona, merkantzia, kapital eta zerbitzuen zirkulazio librea.

Atzerriko hizkuntzak mintzatzeko gai diren pertsonak aukera gehiago izango dute, Europak 1992tik aurrera eskainiko dituen posibilitatez baliatzeko.

Ematen duten kultur aberastasunaz gain, atzerriko hizkuntzak ezinbesteko baldintza bihurtu dira mundura zabaltzeko, inoiz baino egiazkoagoa izanik gure leloa: "Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago".

ELISABETH MADINABEITIA
AHIZKE-CIM. HEZIBIDE

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

BEVERLY TABERNA

Gipuzkoa Etorb., 9 Tfnoa: 79 16 99

ARRASATE

Rebeca Cutier

Cubako Iraultzaren alaba

Arrasateko Emakume Internazionalisten eskutik etorri zen hitzaldia ematera Rebeca. 59an, Iraultzarekin batera jaio zen. Ingelesean lizentziatua, itzultzaile interpretaria da, eta Emakume Kubarren Federazioan kanpo harremanetako arduraduna.

— **Nolakoa da emakumearen egoera Cuban?**

— Ekialdeko herrietako aldaketen eragina somatu da. Familiako kode bat badagoen arren, oraindik emakumea da etxearen arduraduna. Xaboa bezalako produktuak urri daude eta horrek egoera zaildu egiten du. Gobernu ahalegin berezia egiten ari da karentziak zergatik gertatzen diren azalduz. Emakume Kubarren Federazioa irtenbideak bilatzen ari da, herri-baratzak eta antzekoak eginez.

Amerika latinako beste herri batzuekin eta Europako zenbaiten aldean, emakume kubarrak paper nabarmena du gizartean. Hasteko, iraultzaren ondoren alfabetatu eta unibertsitatera joan zen. Gaur egun lanindarraren %38.9 da Cuban eta arlo espezialduetan toki destakatua hartzen dugu emakumeok. Asanblada Nazionalean diputatuen %34a emakumezkoak dira



eta horrek esan nahi du gaur egun emakumeak ezin duela etxera itzuli, herriaren ekonomia kaltetuko litzateke eta.

— **Cubako egoera orokorrean?**

— Beno, petroliorik gabe geratu gara eta horrek eragin handia du. Kasu batzutan lanaldiak murriztu egin dira baina ez dago langabeziarik, Cuban ez da halakorik gertatu. Cubatarra ohituta dago irtenbideak bilatzera. Momentu honetan turismoari lehentasuna eman zaio dibisen sarrerarako iturri gisa.

— **Eta Estatu Batuen blokeo ekonomikoa?**

— Beste herri batzutan guri blokeoa egin diezaguten presiorik egiten ez badute, ongi. Askotan industriak baditugu baina lehengaiak

erosteko kanpora irten beharra daukagu. Enpresa mistoek aurrera irtetzen badute eta turismoak jarraitzen badu, aurrera irtengo dugu.

— **Nola ikusten duzu turismoa?**

— Azken bost urteotan indarra hartu du eta Cubarentzat oso ona da, ez ekonomikoki bakarrik, gizarte aldetik ere bai. Turistek jendearekin hitzegin eta ikus dezatela han benetan zer dagoen. Kritikoki azter dezatela eta jendea izan dadila ikusten duena, ez nazioarteko prentsa. Azkenean, Cuban aurka jotzen dute horiek, herri pobreenzat eredu izan baitaiteke.

Guk bi turista mota bereizten ditugu: dibertsio bila eta dirua gastatzera datorre-

na, eta interes politiko edo soziala duena. Gizartea eza-gutzera datorrenak askatasun osoa du nahi duen lekuan ibili eta erakundeekin harremanak izateko.

— **Fidel Castrok herriaren laguntza osoa du orain ere?**

— Bera karisma handiko liderra da, gogoia dagoenean zer egin daitekeen jendeari erakutsi diona. Eta hori proiektu sozialistaren alde ez daudenek ere errekonozitzen dute. Gaur egun denok berdina gara Cuban, ahalegin pertsonalaren arabera. Lider eta agintari gisa duen gaitasuna erakusten ari da Fidel orain, eta herriarekin egoteko erabakia. Adibidez, orain larunbatetan ez da lanik egiten, eta soldataren %30a deskontatzen zaio langilegoari, baina soldatarik txikienekoekin ez da hori egiten.

— **Zer ekar dezake kubatar batek Euskadira eta zer eraman dezake hemendik?**

— Emakume kubatarren mezua ekar dezaket, eta iraultzarekin hazi eta hezi naizenez, langilegoaren alaba gisa mezu anaikorra. Eraman berriz, gure gizarte perfektionatu behar dugula dakitenen solidaritatea. Baina guk geuk egin nahi dugu, herri guztiekin hitzeginez eta ez nazioarteko prentsa-jazarpenerekin.

BIONA

Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

ARRASATE PRESS

77 05 65

92eko Haratuzteetako kartel lehiaketa


Aurkeztutako 33tatik hona hemen batzuk, aukeratzearren dozena bat. Kalitatez eta kopuruz ugaria aurtengo Haratuzteak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa. Bestelako erakusketarik ezean, balio beza honek aurkeztutakoen lana txalotu eta horiek zein beste edozein ere animatzeko. Hemen ez daudenei ere zorianak.



Estibaliz Ormaetxea. IRABAZLEA.



Lore Astondoa. 3. FINALISTA



Imanol Moreno



Cesar Cimiano



Goio Arana



J. M. Pierrugues



Jaione Elkoro & Leire Zenigaonandia



Nerea Alberdi



Arantzasu Ginart

Berango



**Sukalde-altzariak,
mahaiak eta
aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Kepa Altube "Kopi" Marrazkilari soziala

Kepa Altubek, "Kopi" gaitzenez ezagunagoak, beste askok moduan, oso gustoko zituen pinturak txikitan. Gero institutoko garairako utzita zituen alde batera, eta bizimoduari irteeraren bat eman beharrean aurkitu zenean, berriro hartu zituen.



agintzen duenari kasu eginda. Gauza bat egiteko interesa handia izanez gero, aurrera! ezin dut beste kontseilurik eman.

— Artistok mundutik aparte bizi zarete?

— Pertsona bakoitzak bere barne-mugak dituen bezala, artistok ere baditugu. Horrek ez du esan nahi mundutik aparte bizi garenik; nik neuk marrazki soziala egiten dut, bizi garen gizartearekin konprometitua.

— Hala ere, artista traza arraroko jendea izaten da, ezta?

— Denetarik dago, baina normalean arrarotzat hartu nahi dituztenentzat izaten dira arraro.

— Baduzu idolorik arte mailan?

— Ez, beti izan dut joera horren aurkako jarrera, gauzak eta pertsonak jainkotzen dituen joeraren aurkako jarrera.

— Arrasate toki ona da artistentzat?

— Beste batzuk bezain txarra ez behintzat! Uste dut dagoen kultur-giroa baino aberatsagoa sor daitekeela, baina ez dago hain gaizki: erakusketak, antzerkia, musika jaialdiak... sarritan antolatzen dira, maila ona dago.

— Zergatik pintore?

— Beno, Institutokoa bukatu eta gero zerbait aukeratu behar izan nuen; gainerakoak ez zitzaizkidan gustatzen, arte ederrak samurrak ziruditen eta arte munduan ondo moldatzen nintzen. Uste dut aukera ona egin nuela, pertsonalki aberastu egiten nau eta.

— Orain eskolak ematen ari zara, hori artista baten-tzat aberasgarria da?

— Klaseak ematen pozik nago, bizi izateko beste erremediorik ez dagoelako. Gustora gustora ez nabil, baina lantegi batean baino hobeto bai. Artista izatek bizitza oso zaila da, horretarako artisten egunak 48 ordu izan beharko lituzke. Beste bidea lehiaketetan parte hartzea da, hortik diru dexente ater daiteke eta.

— Arte Ederretako Fakultatean ikas daiteke artista izaten?

— Oinarri batzuk har daitezke, gauzak nondi nora doazen ikusteko balio du batez ere. Hortik aurrerakoa norberaren lana da, bakoitza saiatu behar da dituen helburu eta interesen arabera.

— Inori gomendatuko zenioke Arte Ederrak ikastea?

— Bakoitzak bere aukerak egin behar ditu, ondo pentsatuta eta barruak

▼
"Fakultatetik aurrerako lana norberarena da"



Aloña Altuna. 2. FINALISTA



Marta L. Silva Sarmiento



Ioana Mancisidor

Monte
taberna

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56



J. Ramón Otamendi
HARATEGIA

Ferrerias, 20 • Tel. 79 62 28
ARRASATE

Aste gazte

"Soldaduaren Arartekoak dioenez, soldadutzan bi eguneko soldadu bat hiltzen da".

Bekak

• Deustuko Unibertsitatea: Kontsumo-Zuzenbidearen Goi Mailako Ikastaroan parte hartzeko bekak. Eskatzaileak: Zuzenbidean lizentziatuak. Iraupena: martxoak 2 - maiatzak 8, astelehen eta asteazkenetan, betatik 8etara. Epea: otsailak 20.



• Euskaltzaindia: Lexikologia azterlanerako beka deialdia. Eskatzaileak: Euskal Filologian lizentziatuak. Lanaren iraupena: 10 hilabete, egunean lau ordu. Lansaria: 700.000 PTA. Epea: otsailak 21.

Auzolandegian (Lan-lhardunaldiak)

• Alemanian eta Ingalaterran, martxoan eta apirilean, hamabostaldi bateko egonaldiak. Adina: 18 urtetik gora. Lan-mota: ekologikoa, 3. adinekoei edota umeei laguntza, berreraikuntza, e. a. Kuotak: 60 marko edo 5.000

PTA (lekuen arabera). Izen-emateak: lehen bait lehen.

Lana

• Eibarko Udala: Liburuzain-laguntzaile lanpostua. Kontratua: 2 urte, egun erdiz. Baldintzak: Goi Mailako Batxillerra, LH II edo baliokidea eta langabezian egotea. Epea: otsailak 20.

Lehiaketak

• "Carmen Conde" IX. Poesia-Lehiaketa. Emakumezkoek idatzitako lanak


bakarrik aurkez daitezke. Gai libre. Lanek 600 eta 800 letrorri bitartekoak izan behar dute. Sari bakarra: 500.000 PTA eta lanaren argitarapena. Lanak aurkezteko epea: otsailak 28.

• "Luis Buñuel" zinema-saria. Gai libre. Dotazioa: 1.000.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: otsailak 28.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

ZUHAITZ EGUNA 1992



OTSAILAK 15 LARUNBATA

9,30etan HERRIKO PLAZATIK IRTEERA
10etatik aurrera ZUHAITZ LANDAKETA
 Trikitilariak alaiturik
11etan OGITARTEKO eta
EDARIAK banatuko dira

ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan etxebizitza alokatuko genuke lehenbailehen. Tfnoa: 73 04 20. Amaia.
- Etxebizitza salgai Zigarrolan. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainu gela, guztiz amueblatua. Dei egin 79 18 34 zenbakira.
- Gela alokatzen dugu ikasleen etxebizitza baten ekainetik aurrera. Tfnoak: 74 00 37 eta (94) 630 85 40 / 684 16 65.
- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabilta. Logela bat libre dago. Dei egin 81 66 24 tfnora.

LANA

- Neskak gaixoak zaintzeko gertu, etxean nahiz ospitalean: 79 69 41.
- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu neska gaztea: 79 99 17.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 77 05 47.
- Esperientzia duen neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92. Elena.
- Emakume euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Dei egin 7etatik aurrera 77 05 22 tfnora.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- 1. eta 2. REMeko klase partikularrik emateko prest (berezik matematika, kimika, eta fisika). Dei egin 79 79 14 tfnora. Sergio.
- Klase partikularrik ematen ditugu Oinarritzko Heziketa Orokorrekoan eta euskara maila guztietan. Tfnoa: 77 04 98.

- 7. mailako matematika eta hizkuntza klase partikularrik behar dira. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 20 40 tfnora.
- Emakume euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Dei egin 7.30etatik aurrera 79 63 29 tfnora.
- Bi oheko gela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73

SALEROSKETAK

- la berria dagoen arkoizozkailua saltzen da 65.000 PTAan. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatera bitartean 94 - 682 04 83 tfnora.
- Orbea markako lasterketa-bizikleta berri-berria salgai. 25.000 PTA Tfnoa: 79 40 44.
- Txapa kalefaktorea salgai, egoera onean, baita gas naturalarentzako ur berogailua ere. Tfnoa: 79 59 72.
- Colnago markako mountain bike-a saltzen da. Atzekaldean kubieta berria eta grupo osoa Shimano markakoa ditu. Oso egoera onean dago. Prezioa 50.000 PTA. Dei egin gaueko 8etatik 10etara 79 08 48 tfnora.
- Hiru mendiko bizikleta salgai. Mendiz, Otero eta Orbea markakoak. Tfnoa: 77 04 21.
- Collie txakurkumeak ditut salgai. Tfnoa: 76 64 83.
- Fondoko hiru eski pare salgai. 6-8, 8-10 urte eta nagusientzat. 5, 7 eta 10 mila PTA, dena osorik. Tfnoa: 76 32 69.
- Urte t'erdiko piso bat eta kutxa erregistradora bat (3 urtekoa) salgai. Prezioa 135.000 PTA (Negoziazarriak). Tfnoa: 94 - 658 34 94 (Dei egin goizeko 10etatik 13etara).
- Yamaha SR 250 motorra salgai. 17.000 kmkin eta 230.000 PTAan. Dei egin 79 62 56 tfnora 8etatik aurrera.

- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra salgai. Berria. Tfnoa: 79 15 54.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra eta ur-berogailua salgai. Berriak. Tfnoa: 77 06 70.
- Marshall amplifikadorea salgai. Transistore "combo" modeloa 100 watt. Urtebete baino berriagoa. Oso prezio onean. Dei egin 79 36 83 tfnora.
- Alpen Kreuzer Allure modeloko canping erremolke-denda salgai. Tfnoa: 79 80 85.
- Gezi moduko kitarra elektrikoa distortsio eta guzti salgai. (Gorria eta beltza) baita pedala eta Aria markakoa amplifikadorea ere (berria dago), 50 W. AG-35 R modelokoa. Dei egin 79 39 92 edo 945 - 26 28 01 tfoetara.
- Alpen Kreuzer Super GT canping erremolke-denda salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 945 - 44 50 43 tfnora.

DENETARIK

- Gabon zaharreen urrezko eskuturrekoa galdu zitzaidan. Norbaitek aurkitu badu, eskertuko nioke 79 53 53 tfnora. deitzea.
- 3 txakurkume ditut erregalatzeko, oso politikak dira. Dei egin 79 66 45 tfnora.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnoa.
- Buzoneoa egiteko prest. Enpresa eta erakundeen iragarkien banaketa egiten dugu. Dei egin goizez 79 35 02 tfnora.
- Ehiza-txakur bat erregalatu nuke, txertatuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- Zorionak Urri! la hurrengo partiduan bete dituzun urteak adina gol sartzen duzun. Ez ote dira gehiegi?
- Aretxabaletako bertsolari fina den Aranzazu Loitiri zorionak!!! Subalternos rock taldearen partez.



ARRASATEN
HILDAKOAK

Luzia Altuna Agirre,
otsailaren 5ean. 85 urte.

M^a Dolores Gordobil Gonzalez,
otsailaren 7an. 82 urte.

Placido Gomez Ruiz,
otsailaren 8an. 89 urte.

Filomena Renteria Renteria,
otsailaren 10ean. 88 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Mari Asun Areiza Oihana loradendakoa

- Lore freskoak ala artifizialak? Beti freskoak hobe dira.
- Berdezko ala kolore askotakoak? Kasu gehienetan, landerea hobe kolore askotakoa baino.
- Buelta bat emateko, oinez ala bizikletaz? Oinez, dudarik gabe.
- Zinea ala telebista pelikula bat ikusteko? Zinea. Soinua eta irudia askoz hobeto bereizten dira.
- Geranioa ala kaktusa? Geranioa. Gainera beharbada hobeto saltzen da.
- Etxean eukitzeko katua ala txakurra? Nik txakurra daukat eta nahiko ondo konpontzen gara.
- Egongelan jartzeko landara handia edo txikia? Ez dakit. Egongela handia bada, bietatik.
- Telefonoz ala aurrez-aurre hitz egitea? Aurrez-aurre, buruz-buru.
- Retegi ala Eugi? Ez ditut ezagutzen, badakit biak naparrak direla baina ezer ez gehiago.
- Egunkaria ala irratia? Irratia. Beno biak, baina irratia gehiago entzuten dut.
- Bertako loreak ala kanpotik ekarritakoak? Bertakoak, baina nola udaberrian bakarrik dauden, bestelakoekin konformatu behar.
- Mendia ala hondartza? Udan hondartza, bestela mendia.
- Bertsoak ala kontzertu bat? Kontzertu bat, bertsoak ez ditut ulertzen.
- Kiniela ala loteria? Bat ere ez.
- Saltzeko, astean zehar ala larunbatetan? Ez dut desberdintasunik ikusten batetik bestera.
- Loreak tiestotan ala baratzean loreak? Tiestotan. Baratzeakoak lan asko dute.
- Oporrak pasatzeko kanping-a ala apartamentua? Apartamentuak beti ditu komodidade gehiago.



Bertsotan

Apotzagako bertso afaria


1

Ez dakizula zer egin zeiken oraingo larunbat hontan? Ez daukazula egitekorik gau hortarako asmotan? Proposamen bat daukat etxean gera ez zaitezen lotan, badago bertso saio xume bat Apotzaga alde hortan bi ordu luzez han ariko da Leintz bailara bertsotan.

2

Azken urtetan jaialdi honek indar handia hartu du aurten gainera Gabilondoren omena dauka helburu bilduko dira Apotzan hogeitau bertsolari inguru eta nahiz eta beraiek pasa makinatxo bat apuru parranda eta algara behintzat izango dira seguru.

SAIOA ARANDO



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50



Z

igarrolako jaiak zirela bai, baina urtea ez dakigu. San Isidrotara joan zen argazkiko kuadrila. Taldearen atzekaldean

Txosaren estankoa eta Zerrategia ageri dira eta kuadrilako mutiletan ezkerretik hasita lehena Jose Mari Mora. Gero Bartzelonako Seat-era

joan zen lanera. Bigarrena Julio Maraño, burua makurtuta duena Nikolas Agirre eta gero, Felipe Markos, Adolfo Erguin "Arto-rotz". Jarraian, Rafael Maraño, Jose Mari Astaburuaga eta Fernando.

Behean belaunbiko, Luis Gutierrez, "Guti" eta "Barki" ezizenez, barkiloak saltzen ibiltzen zelako, Pako Mentxaka eta Jose Antonio Amozarrain "Paiko".

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Gurutzegrama

1	A	B	I	A	D	U	R	A	7
8	Z	U	R	G	I	N			B
9	A	R	A	U	T	E	10	G	I
11	L	U	R	R	A		12	U	S
13	E	D	E	R	R	A	14		A
15	K	U		16	A	E	K		T
17	O	N		18	K	A	I	K	U

Horizontalak

- Ziztu
- Arrasateko kantoi ezaguna
- Erregelamendu
- Gure planeta
- (Ald.) Gar
- Ikuste atseginekoa
- Errepikatuz, hegazti migraria
- Alfabetatze euskalduntze koordin.
- Txar ez dena
- Astakilo

Bertikalak

- Arina
- Zentzudun
- (Ald.) moduari
- Agurketak
- Jostorratza bultzatzeko tresna
- Garai
- Oharterazi
- Zuek eta ni
- Akitu aditzaren infinitiboa

U	K	I	A	K		N	O
T		K	E	V		U	K
A		A	R	R	E	D	E
S	U		A	R	R	U	L
I	G	E	T	U	A	R	A
B		N	I	G	R	U	Z
A	R	U	D	A	I	B	A

JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Polizi akademi eroa

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: otsailak 15, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan


Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



SEAN CONNERY E. MURRAY ABRAHAM



Arrosaren izena

Egunero, 9.50etan

Dagoeneko guztiok jakingo duzuen bezala, ATBn gauero pelikulak emititzeari ekin diogu. Eta datorren asterako zuentzako aukeratu dugun filmea ez da, ez, batere makala: Arrosaren izena.

Umberto Ecoren nobelan oinarrituta, Jean Jacques Annaud-ek zuzendutako pelikula honetan Sean Connery ezagunak monastegi baten gertatutako erahilketak argitu beharko ditu.

Telebegi

Sexua

Telebistako iragarki gehienek, sinbolu sexual direktu edo indirektuak erabiltzen dituzte erreklamu gisa. Publizitatea sexua da; hori bai, gehiena, izkutukoa, subliminala.

Eta honek behar du arrazoiren bat izan; publizitez ongi aztertzen dituzte eta kontuak, estrategiak burutu aurretik. Ondorioa argia da, publizitateak sexua erreklamu gisa erabiltzen badu, ikusleak sexua erreklamatzeko duelako da. Sexua ikusi nahi dugu no-nahi; telebistan, aldizkari portadatan, solasaldietan eta hitzetan bertan.

Gure bizitzako gairik nagusienetako bat da beraz. "Sexua, modu sanoan bizi ezkerro, arazo barik, pentsa arazten diguten gaien %10a izaten da; bizitza sexual personalak asetzen ez badigu ostera, gure pentsamenduko %90a sexuari eskaintzen diogu". Ez dut hau nik esaten, sexologoek baizik. Joder, ikusitakoak ikusita, hemen kiski guztia inpotentzia, frigidez eta gainontzeko arazo sexual bezala jota dago.

Beraz, txanda eskatu behar sexologoari, edo hobeto, ze demontre, mai-talearekin batera telebista ikusi, publizitatea aztertu eta ondorioak atera.

ANDONI URZELAI

ATBoom!

Ostegunean egingo dugun jaialdiaren laburpena

**Domekan
8.45etan**

ATBk

Asteburuetarako kazetariak behar ditu.

**la ba, deitu:
770690-770815**

Txatxaran

ATBko aurkezle ezagun bat

**Asteazkenean
9.15etan**

Programazioa

16

IGANDEA

- 8.45. **ATBoom.** Ostegun honetan Eskola Politeknikoan burutuko dugun jaialdiaren ordu erdiko laburpena.
- 9.15. **Mondragol.** Mondrago partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardurapean.

17

ASTELEHENA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** ATBren albiste-emanaldia.
- 9.15etan, **Mondra Sport.** Arrasateko Kirol-mundua-
ren errepaso, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uri-
besalgorekin.

18

ASTEARTEA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**
- 9.15. **Erreportaiak.** Aste honetako gaiak: ATBoom, eta Zuhaitz Eguna.
- 9.50. **Asteko zinea:** Arrosaren izena.

19

ASTEAZKENA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**
- 9.15. **Txatxaran.** Maider Egués-
ek zuzendutako elkarrizketa
saioa. Aste honetako gonbi-
datua: ATBko aurkezle eza-
gun bat.
- 9.50. **Asteko zinea:** Arrosaren izena.

20

OSTEGUNA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** Al-
bistegia.
- 9.15. **ATBketan.** Anne Igar-
buruk aurkeztutako le-
hiaketa berri, umoretsu eta
ikusgarria.
- 9.50. **Asteko zinea:** Arrosaren izena.

21

OSTIRALA

- 8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** In-
formatiboa.
- 9.15. **Ostiral Musikala:** Marta
Izagirrek zuzenduta, Arra-
sate Musikali eskainitako
saioa.
- 9.45. **Asteko zinea:** Arrosaren izena.

Haize berriak dituzu.

RENAULT KONTZESIONARietan.

Mires ezazu Renault 19 Wind serie berezia.

Imagina dezakezun ekipamendurik osotuenaz*, eta serie berezi bateko aukerarik zabalenez. 3, 4 edo 5 atekoan artean aukeratu ahal izango duzu, eta motore aldetik, 65 CV diesel-ekoetatik 107 CV gasolina injekziokoetan artean.

Zatoz hurbilen duzu Renault kontzesionarira eta eskura ditzakezun eskaintzen berri emango dizugu. Zuretzat bereziki pentsatutako eskaintzak. Haize berriak goza ditzazun.

Zatoz eta ikusi.

RENAULT 19 BERRIA

WIND
SERIE BEREZIA



* Bertsioen arabera



MECA TAILERRAK S. A.
Araba Etorbidea. Tfnoak: 79 59 99 / 79 59 09 ARRASATE